



Diru sarrerak

• Zenbat eta nola ordaintzeko prest dago gure bezeroa eskaintzen ari garen produktuaren edo zerbitzuaren truke?

Gure bezeroak desagaitasunak edo behar bereziak dituzten haurren familiekin batera prest daude kalitate handiko, irisgarriak eta egokituak diren produktu edo zerbitzuak ordaintzeko, betiere produktuak balio erreal eta erabilgarri bat eskaintzen badiete. Oro har, familia hauek:

- Prezio ertain edo ertain-altu bat ordaintzeko prest egoten dira, produktuak benetan lagungarriak badira eta haurraren autonomia, ikaskuntza edo jolasteko gaitasuna hobetzen badute
- Ordainketari baloratzen dute :
 - Ordainketa malguak edo zatika ordaintzeko aukerak
 - Eskaintza bereziak edo paketeak (material multzoak batera erostea)
 - Iraunkortasun handiko produktuen erosketak, epe luzera aurrezteko ekartzen dutelako

Azken batean, bezeroa prest dago ordaintzeko balio erantsia, erabilgarritasuna eta haurraren ongizatea bermatzen dituzten produktuen truke. Produktuak egokitzapen espezifikoak eta kalitate handiko materialak dituzten heinean, inbertsio bezala ikusten dira, ez gastu soil gisa.

Gure diru laguntzak eta ekarpenak

Gasteizko Udalak laguntza ekonomiko batzuk ematen ditu ekintzailentzarako. Gure kasuan, ideia garatzeko eta proiektua abian jartzeko laguntza izango litzateke:

- 18 urte beteta izatea
- Langabezian eta dagokion enplegu-zerbitzu publikoan izena emanda egotea edo lanaldiaren % 30 baino gutxiago lan egitea.
- Jarduera ekonomikoen gaineko zergan (JEZ) eta autonomoen araubidean alta eman gabe aurreko urtean.

-Negozio ideia bat izatea edozein jarduera adarretan edo bideragarritasun plan bat izatea.

-Hiru hilabetez prestakuntza- eta aholkularitza-ekintzetara joatea.

-Hurrengo hiru hilabeteetan EAEko Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta ematea.

-Lanbideren laguntzarik jaso ez izana enpresa-idea bat garatzeko edo aurreko deialdietan abian jartzeko.

Gure kasuan, zenbatekoa 2.600€ izango litzateke,<30 urteko emakumeak izateagatik.

Guk geuk ere jarri genuen diru kopuru jakin bat, Gasteizko Udalak emango ligukeenaz gain. Gure ekarpena pertsonako izango litzateke (3 pertsona gure kasuan) 1.000 €, guztira 3.000 €, eta hori guztia guztien adostasun batez erabakita. Gure enpresak bi diru sarrera motak izan ditzake:

1) Ordainketa bakarreko diru-sarrerak:

Bezeroak produktua behin erosten du eta ez du berriro ordaintzen. Hau egokia da:

- material fisiko egokituak
- jostailu irisgarriak
- egurrez, plastikoko ekologikoz edo birtziklatuko materialez egindako produktuak

2) Ordainketa errepikakorrak:

Bezeroak maiztasun jakin batekin ordaintzen du. Hau aplikatu daiteke:

- Webgunetan eduki digital egokiak
- Baliabide pedagogikoen eguneraketak
- Harpidetza bidezko material sorta berriak

Diru-sarrera iturri posibleak

Enpresak diru-sarrerak sortzeko modu anitz izan daiteke

- Aktiboen salmenta: produktu fisikoen salmenta (jostailuak, egokitutako materialak ..)
- Erabileragatiko saria: edukietarako edo tresna digitaletarako sarbidea erabilera konkretuaren arabera
- Harpidetzagatiko saria: hilero edo urtero; material didaktiko berriak, baliabide digitalen deskargak eta ahots irakurgailu bateragarrien edukiak .

- Mailegua, renting-a edo alokairua: garestiagoak diren produktu edo tresnen kasuan (material handiak, diapositibo lagungarriak..)
- Komisioak: beste enpresa edo profesional batzuekin lankidetzan, salmenta bakoitzeagatik komisioa jasota
- Publizitatea: webgunean, beti ere irisgarritasuna eta etika erresperatuz

Prezio motak

Honela sailkatzen dira:

- **Prezio finkoak:** Produktu edo zerbitzuaren balio objektiboan oinarrituta:
 - material fisikoak
 - eduki digitalen pakete zehatzak
 - zerbitzu estandarrak
- **Prezio dinamikoak:** Merkatuaren, eskaeraren edo bezeroaren beharren arabera alda daitezke:
 - Eskola edo elkarteentzako eskaintza pertsonalizatuak
 - Materiak kopuru handien erosketak
 - Garapen bereziko produktuak

BIBLIOGRAFIA

- *Diseño de logos, gráficos y de IA* | [Design.com](https://www.design.com/es-es?code=25OFFSEM&utm_medium=cpc&utm_source=g%20oogle&utm_campaign=europe_04_services_logo_maker_spanish_ai_max&utm_adg%20roup=non_logos&utm_content=765143262446&utm_keyword=creador+marca&utm_%20network=g&gad_source=1&gad_campaignid=20992625880&gbraid=0AAAAADwF9L%20DL0A9BovyfKI3nfwYrCi00b&gclid=Cj0KCQiAxonKBhC1ARIsAIHq_lsiD3vjEEyk4TwP%20TYt2cqGyTm7hsS_glDpWEBavFifWR-JFIKdzBUEaAurQEALw_wcB).
https://www.design.com/es-es?code=25OFFSEM&utm_medium=cpc&utm_source=g%20oogle&utm_campaign=europe_04_services_logo_maker_spanish_ai_max&utm_adg%20roup=non_logos&utm_content=765143262446&utm_keyword=creador+marca&utm_%20network=g&gad_source=1&gad_campaignid=20992625880&gbraid=0AAAAADwF9L%20DL0A9BovyfKI3nfwYrCi00b&gclid=Cj0KCQiAxonKBhC1ARIsAIHq_lsiD3vjEEyk4TwP%20TYt2cqGyTm7hsS_glDpWEBavFifWR-JFIKdzBUEaAurQEALw_wcB
- *STARTInnova*. (s. f.).
https://araba.startinnova.com/curso/bloque_3/puzzle.php?idioma=eu
- (s.f.). TuLibrodeFP-FP de Editorial TuLibro.
<https://www.editorialtulibro.es/tulibrodefp/>